

KANPAINA INSTITUCIONALA 2024-2025

KARITATEAREN EGUNERAKO SENTSIBILIZAZIOARI ETA ORIENTABIDEEI BURUZKO MATERIALA

AURKEZPENA

ZERTARAKO MATERIAL HAU

Sentsibilizazioa lantzeko material honen **helburua** da zenbait gako eta orientabide agertzea, Corpus Egunean Karitatearen Egunaren ospakizuna prestatzera eta antolatzen animatzeko bai Caritaseko eragileak eta bai kristau-komunitate osoa.

Caritasen kanpaina instituzionalaren bidez, kristau-komunitatea eta gizarte osoa **ANIMATZEA** eta **SENTSIBILIZATZEA** bilatzen da, eta horiei guztiei Jesusen Berri Onaren LEKUKOTASUNA EMATEA, bai eta Karitatearen eragile garen aldetik zer lan egiten dugun ERAKUSTEA ere.

Gizarte-testuinguruaren analisi labur batetik abiatuta, aurtengo ospakizunaren leloa aurkeztu dizuegu. Horixe erabiliko dugu hurrengo urteko Karitatearen Egunera arte.

Gogoetarako zenbait testu eskaintzen ditugu, ospakizunarekin bat egin nahi duten boluntarioek, teknikariek eta kristau-komunitateko kideek beren gizarte-ekintzaren osagarri izan dezaten.

NOLA ERABILI MATERIAL HAU?

Edukia baliagarria izan daiteke baliabide desberdinak prestatzeko, besteak beste parrokia-orria, hitzaldiak edo sentsibilizazio-tailerrak. Norberak egokiena iruditzen zaion eran baliatu dezake material hau, urte honetan taldeen sentsibilizazioa animatzeko.

Gogoetaren lagungarri izan daitezkeen jarduerak ere proposatzen dira, bai eta parte-hartzea animatzeko keinu komunitario bat, eta otoitzerako eta ospakizunerako pista batzuk ere.

BALIABIDEAK

LELOA: **"BEHAR GAITUZUNEAN, HORTXE GAUDE ITXAROPENARI BIDEA ZABALTZEN"**

izango da gure mezu instituzionala, 2025eko Karitatearen Egunera arte.



BEHAR GAITUZUNEAN, HORTXE GAUDE
ITXAROPENARI BIDEA ZABALTZEN

BEHAR GAITUZUNEAN,

pertsona zaurgarrientzako mezua da, jakin dezaten beti izango gaituztela laguntzeko prest.

HORTXE GAUDE ITXAROPENARI BIDEA ZABALTZEN,

berriz, pertsona ororentzako mezua da, hau da, parte-hartzaileei, kristau-komunitateari eta gizarte osoari zuzendutako mezua, Caritasen eta bertan parte hartzen dugun guztion ekintzaren lekukotasuna emateko, elkartasuna eta gizarte-erlaketarekiko konpromisoa animatzeko.

KARTELA: leiho bat da, Caritasek hainbat proiektuen bidez zer errealitatetan laguntzen duen erakusten duena; horrela, ikusgai egon gaitzake, bai parroketan eta bai gure mezua helarazi nahi dugun gizarte-esparru guztietan.



DIPTIKOA: kanpainaren ideia nagusiak aurkezteko dibulgazio-orri bat.

BIDEOA: ikus-entzuneko materiala, gutxi gorabehera minutu batekoa, kanpaina aurkezteko baliagarria izan daitekeena.

BEHAR GAITUZUNEAN, HORTXE GAUDE ITXAROPENARI BIDEA ZABALTZEN

“Ongia, maitasuna, justizia eta elkartasuna ez dira behin eta betiko lortzen; egunero erdietsi behar dira”. FRANTZISKO, Fratelli tutti, 11. zk, aurrerantzean FT.

Corpus Eguna eta Karitatearen Eguna batera ospatzeak kristau-espiritualtasunaren muinean kokatzen gaitu. Pazko-afarian, Jesusek lehen aldiz ospatu zuen Eukaristia, hainbat keinu eta hitz erabiliz bere gorputza eta odola eskaintzen zigula adierazteko, hau da, bere bizitza gizateriaren alde ematen zuela adierazteko. Ez da erritua hutsal bat; izan ere, sakramentu bizia bihurtzen da kristau-komunitatea mahaiaren inguruan elkartzen den bakoitzean, Maisuaren bizitza, heriotza eta piztuera ospatzeko.

Jesusen jarraitzaile garen aldetik, gaur dei egiten zaigu keinu hori eguneroko bizitzan berritzera, **gu geu karitate bihurtuz**, ogi bihurtuz, zatitu eta gure senideekin partekatzeke, batez ere behartsuenekin eta zaugarrienekin.

BEGIRATU BAT ERREALITATEARI: GIZA DUINTASUNA, KRISIAN.

Gure herrian, pobrezia fenomeno estrukturala da, iraunkorra, unean uneko egoera ekonomikotik haragokoa. Aberatsen eta pobreen arteko arrakala handitu egin da; aberatsak aberatsagoak dira, eta pobreek askoz ere zailtasun handiagoak dituzte pobreziatik ateratzeko, pobrezia beren bizitzan finkatu baita eta ez baitie uzten egoera horretarik ateratzeko aukerarik lortzen.

Gizarte-etsipeneko giroan bizi gara; bertan, norberaren biziraupena eta gure inguru hurbileko jendearen biziraupena bihurtu da ia garrantzitsuena. Etxebizitza izateko eta lortzeko zailtasuna modu kezkagarrian hedatu da gizarte osoan, eta ongizatearen estatuaren gainetik dabil hegan, oraina ez ezik etorkizuna ere ilunduz.

Caritasen eta Foessa Fundazioaren azken txostenek itzalez eta zailtasunez betetako panorama bat irudikatu dute. Egoera hori are gehiago larriagotu da, gero eta gehiago baitira gerratik, lehortetik eta indarkeriatik ihesi gurera bake, askatasun eta esperantza bila datozen pertsonen exodo masiboak.

Frantzisko aita santuak, Fratelli tutti izeneko azken entziklikan, giza izaera eta duintasuna mehatxatzen dituzten itzaletako batzuk xehatzen ditu. Gure harremanen joko-arauei eman diegun boterea pixkana-pixkana ari da giza identitatea itotzen, ekonomia global eta indibidualista baten zerbitzura jarrita; ekonomia-eredu horrek bazterketaren kultura sustatzen du, eta guztion ongiaren kontzientzia lausotzen. Munduko gizarteetan giroa gero eta bortitzagoa eta erasokorragoa da, eta elkarrekin justizia eta bakea eraikitzeke ametsa utopia urruna eta iritsi ezina bihurtzen ari da.

Los Gizartearen beldurrek hesi berriak sortzera garamatzate, lurlean eta bihotzean harresiak eraikitzea, kulturen eta pertsonen arteko elkar-hartzea saihesteko (cf. FT 27. zk)

Gure inguru hurbilenean, Caritasen eta Foessa Fundazioaren txostenek argi erakuste dute zer-nolako errealitatea bizi duten haien programetan parte hartzen duten milaka pertsonak; alegia, ikusten da behin eta berriro urratzen eta ukatzen zaizkiela giza eskubideak.

- **Askos ere bazterketa-egoera larriagoak** gertatzen dira, pertsonak hondatuago daude, batez ere alderdi psiko-emozionaletik.
- **Etxebizitza eskuratzeko arazoak** larriagotzen ari dira, eta gora doaz etxerik gabeko gizon, emakume eta familien kopuruak.
- **Lan-egoera prekarioak** oztopatu egiten du pertsona askok egonkortasuna izatea eta bizi-proiektu berriei ekitea.
- **Alokairuan bizi diren herritarren estres finantzarioa** handiagotu egin da, alokairu sozialaren eskaintza urriagatik eta diru-sarrerara apalengatik.
- Gero eta pertsona gehiago daude egoera administratibo irregularrean, **migrazio-oldeen** ondorioz.
- Ume eta gazte asko daude **desabantaila handiko gizarte-egoeran**, eta ziur asko bizitza osoan jasan beharko dute hori.

Gaur egun, pertsona guztiok sentitzen dugu, alde batetik, itxaropenari eutsi beharra, eta bestetik, ziurgabetasunez josirik dugula etorkizuna. Orainaren berehalakotasuna da gure bizitza betetzen duen bakarra, ia. Galduta sentitzen gara, batzuetan babesik gabe, norabide argirik gabe.

““Mundu masifikatu honetan inoiz baino bakarrago gaude, banakako interesak nagusitzen baitira, eta existentziaren alderdi komunitarioa ahultzen” (FT 12. zk)

NON KOKATZEN GARA?



“Kristau bakoitza eta komunitate bakoitza Jainkoaren bitarteko izatera deituta dago, behartsuen askatasunerako eta sustapenerako, horrela gizartean erabat barneratu ahal izan daitezen; horrek esan nahi du esaneko izan behar dugula eta erne egon behar dugula, behartsuaren deia entzun eta laguntza emateko”. Errealitate horrek “egunero uzten digu aukeran samariar ona izatea edo bidean aurrera jotzen duen bidaiari axolagabea izatea” (Evangeli gaudium, 187. zk)

Errealitate horrek “egunero uzten digu aukeran samariar ona izatea edo bidean aurrera jotzen duen bidaiari axolagabea izatea” (FT 69. zk) Hiru jarrera ditugu aukeran:



- **Ihes egitea:** Errealitateari izkin egiten diogu, gainerakoen mina ikusezin bihurtzen dugu, isolatu egiten dugu, eta kutxa batean sartu, eragozpenik sor ez diezagun.
- **Bertan aritzea:** errealitateari bekoz beko begiratuz, eta geure buruari galderak eginez.
- **Konpromisoa hartzea.**

Caritasen, munduan **maitasunez** egotea eta bizitzea da **gure konpromisoa**. Garai honetako kristauak errukitsuen elkartea izatera deituak gara, hau da, Jesusen urratsei jarraitzen dietenen komunitatea izatera, Jesusen hitzekin eta bizitza ikusteko moduarekin pozten eta alaitzen direnena. Jesusen begiratzeko eta barkatzeko era, entzutekoa eta kontsolatzeko, bere egiten dutenena. Halakoek ez dute ezikusia eginda aurrera jarraitzen, baizik eta aurre egiten diete minaren, elkar ezin ulertuaren, pobreziaren eta sufrimenduaren ondorioei, eta hurbiltasunez agertzen dira pertsonen duintasuna ahuldu edo ikusezin bihurtzen den lekuan, eskubideak iritsi ezinak bihurtzen diren lekuan.


BEHAR GAITUZUNEAN



Aurten ere, **Corpus egunean Karitatearen Eguna ospatuko dugu** Caritasen. Gure asmoa da kristau-komunitatea eta oro har gizarte osoa animatzea, pertsona behartsu eta zaurgarrienekiko eta haien eskubideekiko konpromisoa hartzea.

Errukitsuen elkarteko kide bihur zaitezela eskatzen dizuegu, zuek ere errukia senti dezazuen, Jesusek atzetik segika zuen jendetza **ikusita sentitu zuen bezala**.

Begien bistara ekarri nahi dugu pertsona askoren errealitatea. Pertsona horiek, egun batean, era batean edo bestean, **norabidea edo zentzua galdu dute**, edo baliabide gutxi dituzte eta ez dute aurkitzen aukerarik aurrera egiteko, edo lana edo bizilekua aurkitzeko, edo indarkeria matxistatik libratu eta beldurrik gabeko bizitzen hasteko; ez dute aurkitzen entzungo dien norbait, garrantzitsuak direla sentiaraziko dien norbait; ez dute aurkitzen bakardadea arintzeko modurik, eta bakarrik jarraitzen dute gaixotasunaren ondorioz, urteak betetzearen ondorioz, edo gazteak izanik etorkizunerako itxaropenik ez edukitzearen ondorioz.



Caritasen badakigu **ibilbidea berrantolatu egin daitekeela** mila erataraz; horretarako, hortxe egon besterik ez dugu egin behar, gertu egon, premia duen hainbeste jenderen ondoan egon, eta guztiok barnean duguna eman: **maitasuna erakutsi**, entzunez, abegi ona erakutsiz, ahaldunduz, haiekin denbora pasaz, aukerak emanez eta proiektu komun bat eramanez aurrera.

Maitasun sortzaile hori pertsonen duintasunaren aldeko maitasuna da, trukean ezer eskatu gabe eskaintzen da, eta hemen eta orain agertzen da; hala, **karitate** bihurtzen da, pertsona bakoitzarekin eta pertsona bakoitzak dituen eskubideekin **konprometituta**, eta horrek elkarrengana lotzen gaitu, pertsonen komunitate gisa eta gizarte gisa.

Behar gaituzunean, zure istorioa dena delakoa izanda ere, hortxe gaude eta hortxe egon nahi dugu; Eliza garen aldetik, kristau-komunitatea garen aldetik, Caritas garen aldetik, hor egon nahi dugu, zurekin, lagun zaurgarrienekin, ahotsa altxatuz sufrimendua salatzeko, eta eskubiderik eza eta aukerarik eza salatzeko, eta bide berri bat egiten den bakoitzean, ate bat irekitzen den bakoitzean, berriro hasiera bultzatzen den bakoitzean, itxaropenaren berri ona iragartzeko.

HORTZE GAUDE ITXAROPENARI BIDEA ZABALTZEN

Lagun hurkoa maitatzea, doakoa izatea eta zerbitzu ematea dira Caritasen ekintzaren ardatza. Horiek dira gizartean guztion ongia lortzeko haziak, eta hazi horietatik hazten diren ernamuinak pertsonen bizitzetan gauzatzen eta bistaratzen dira, pertsona horiek berriro ere duinak direla sentitzen dutenean, maitasunez eta ondo zainduz begiratu eta entzun zaielako. Itxaropenari bidea zabaltzea, utopia ez ezik, eginkizun gaitza ere bada, konprometitua eta egunero egin beharrekoa, eta berekin dakar erantzukizun afektiboa eta efektiboa, koherentea eta hurbilekoa.

Gure herrialdean atzerritar jatorriko pertsonen egoera legeztatzea, pertsona horiek beren eskubideak baliatu ahal izan ditzaten ahaleginduz haien duintasuna zaintzea eta babestea, lana lortzeko prestakuntza ematea... azken buruan, herritar garen aldetik karitate politikoan jardutea; horra hor Caritasen egiten dituen ekimenetako batzuk.

Ondoren, hiru egiteko proposatzen ditugu, bide hori zabaltzeko eta sastrakaz garbitzeko, itxaropena ereitearren zer egiten ari garen aitortzeko, eta jakiteko zer egin dezakegun gure lana erakuste aldera, argitara ateratze aldera eta beste batzuei kontatze aldera. Bidea zabaltzeko modu asko daude, gure sormenak abian jar ditzakeen bezainbeste. Hemen pistaren bat bakarrik utziko dizuegu, horren bidez errazago lortu ahal izango duzuelakoan zuengan kontzientzia piztea, sentiberagoak bihurtzea eta besteak animatzea.

ZER PROPOZATZEN DIZUEGU?

- → 1 **Besteekin elkartzera ateratzea**, batez ere beharrik handiena dutenekin. 2.
- → 2 Guztion ongiarekin **konprometitzea**.
- → 3 Komunitatean **elkartasuna lantzea**.

Hona hemen taldean lantzeko zenbait gogoeta, bai eta hainbat galdera ere gure konpromisoari eta zerbitzuari buruz sakontzeko, eta elkarrekin hausnartzeko nola zabaldu diezaiokegun bidea itxaropenari gure misioaren eguneroko jardunean.


1 BESTEekin ELKARTZERA ATERA

“Atera zaitez zure lurretik, zure aberritik, zure aitaren etxetik, nik erakutsiko dizudan lurralderantz” (Hasiera 12,1).

Nola transmititu esperantza, nola zabaldu bidea, sufrimenduaren eta pobreziaren erdian? Frantzisko aita santuak esaten digu ez dugula zain egon behar, gure atea noiz joko; pertsonengana iritsi behar dugu, dauden lekuan daudela ere, “beren etxeetan, ospitalean eta egoitzetan, kalean eta bazter ilunetan –han ezkutatzen baitira batzuetan–, babes- eta harrera-lekuetan...” eta lortu behar dugu, oroz gain, haiek “benetan ezagutzea”, “gure bizitzaren parte” izan daitezen (V. Munduko Behartsuen Jardunaldiko mezua).

Elkarketa bakoitza, laguntza adierazgarria emateko harreman bakoitza, elkarrizketa sendagarri bakoitza itxaropen-sakramentua da, bereziki pertsona behartsuenentzat. Beraz, kontua da **besteen bila ateratzea, bizitzan LAGUNTZEKO**, sendatze- eta suspertze-prozesuan laguntzeko, bizitza hobea bilatzeko prozesuan laguntzeko, pertsona horiekiko loturak eratuz eta haien ahalmenekiko konfiantza erakutsiz.

Bidean laguntzeak esan nahi du “mantua zabaldu” behar dugula azpian guztiok sar gaitezen, han egoteko, besterik gabe. Elkarrekin egotea esan nahi du, elkarrekin paseoa ateratzea zalantzak, bilaketak, malkoak eta irribarreak, arrakastak eta porrotak, otoitza eta salaketa.



Gogoetak partekatu eta solasean jardungo dugu:

Noraino sentitzen naiz laguntzailea eta/edo lagundua nire bizitzako alderdi desberdinetan? Ekarri gogora aurten bizi izan dituzun egoera zehatz batzuk.

Itxaropenaren zantzurik sumatu al duzu, laguntzaile izan zaren esperientzietako batean? Norengandik egon zara gertu? Nola izan zara itxaropena beste pertsona batzuentzat? Partekatu.

Nola aterata gaitzeko Caritasera hurbiltzen diren lagun zaurgarrienekin elkartzera modu berri batean, baliabideak, argibideak edo harrera eskaintzetik harago? Zer gehiago eskain dezakegu?

GUZTION ONGIAREKIN KONPROMETITU

Karitatearen Eguna ospatzea aukera handia da parrokiako, artzapezpikutzako eta elizbarrutiko taldeentzat, erretoreentzat eta pastoralta-taldeentzat, lurraldeko sarea eta presentzia sendotzeko, eta gaur egun herri edo hiri baten errealitatean Eliza izatea zertan datzan erakusteko, lekukotasuna emanez.

Pertsona askok ez dute ezagutzen Caritasen lana, edo arreta-emate puntuala dela uste dute, hau da, norbaiti zerbait ematea, horren beharra duenean.

Kristau-komunitateak eta gizarte osoak jakin behar du harrera bakoitzaren ondoren pertsonen eta baliabideen sare oso bat dagoela ondo antolatuta, laguntzeko bide zehatzak proposatzeko: itxaropen-bideak, sendatzeko ibilbideak, prestakuntzakoak, lana bilatzekoak...

Pertsona bakoitza bere errealitatea eta beharrak kontuan hartuta artatzeaz gain, konponbideak ere bilatzen dira, pertsona horiek gizartetik baztertuak izatea eragiten duten egiturazko arazoetarako.

Sendatzea eta zaintzea ez dira aski; horrez gain, ezinbestekoa da “taldeei eta taldeetako kide bakoitzari beren perfekzioa errazago eta modu beteagoan lortzeko aukera ematen dieten gizarte-baldintzak sustatzea” (Gaudium et spes, 26. zk.). Hau da, duintasuna bete-betean bizitzea.

Eta hori ezagutzera eman behar da, Caritasen barruan nahiz kanpoan.

Gogoetak partekatu eta solasean jardungo dugu:

Frantzisko aita santuak bi proposamen egin ditu, itxaropen publikoaren bidea zabaltzeko, itxaropen hori guztion ongia baita. Zehazki, hauek dira bi proposamenak: **topaketaren kultura** eta **zaintzaren kultura** sustatzea eta animatzea.

- “Elkarrengandik urruntzearen, zatiketaren, baztertzearen kulturari aurre egin, eta besteekin topatzera atera behar dugu, eta gure fedearekin adiskidetasunaren kultura sortu, denok elkarren senide izan gaitezen, eta guk bezala pentsatzen ez dutenekin edo beste fede bat dutenekin ere hitz egin ahal izan dezagun. Guztiok dugu zerbait berdina: guztiok gara Jainkoaren irudiak, Jainkoaren seme-alabak (cf. Mendekosteko Bijilia Eliz mugimenduekin, 2013ko maiatzaren 18a).
- **Zaintzaren kultura** honela ulertu behar da: “konpromiso komun, solidario eta parte-hartzailea hartzea guztion ongia eta duintasuna babesteko eta sustatzeko, eta prest egotea zaintzeko, arreta emateko, errukitzeko, adiskidetzeko eta suspertzeko, elkar onartzeko eta errespetatzeko”.



Zure ustez, Caritaseko zure taldeak edo zure komunitateak nola eskain dezake esperantza, nola zabaltzeko bidea, erraztuz, proposatuz, jardunez...? Zertan?

Gure inguruan guztion ongiarekin lotutako zer egoera hobetu litezke? Zer egin edo proposatu genezake? (hainbat arlotan: ingurumena, osasuna, esparru publikoa, auzo-harremanak, behartsuenen eskubideak...)

Nola ehundu dezakegu sarea, gureak ez bezalako ideiak dituzten pertsonekin edo taldeekin? Zerk erraztuko liguke elkarrekin bat egitea eta lankidetzan aritzea, eta zertan batu genitzake indarrak?



KOMUNITATEA ELKARTASUNA LANDU

“Inor ezin da bizitzan bere kabuz aritu borrokan. Euskarri izango den komunitate bat behar dugu, komunitateak guri eta denok elkarri aurrera egiten laguntzeko” (FT 8. zk)

Kidetasunezko eta elkartasunezko komunitate bat behar da, haren alde eskaini ahal izan ditzagun gure denbora, ahaleginak eta ondasunak (cf. FT 36. zk.). Denok bat egiteko eta “gu” bihurtzeko eskatzen zaigu, banakotasun txiki guztien batura baino indartsuagoak izan gaitzen (cf. FT 78. zk.). Izan ere, “komunitate-zentzua eta batasun-zentzua zenbat eta gehiago hazi bizi-estilotzat, orduan eta gehiago garatzen da elkartasuna” (VI. Munduko Behartsuen Eguna, 5. zk.)

Bizitza, ondasunak eta ekintza partekatuko dituen komunitatea izatera deituak gara, komunitate horretan “elkarrekiko maitasunaren ondorioz bata bestearen zamak eraman ditzagun, inor atzean baztertuta edo abandonatuta geratu gabe”, Frantziskoren hitzetan.

Beste alde batetik, fededunen komunitatea garen aldetik, ezin gara isolatuta geratu, baizik eta gizarte-ingurunean elkar-eraginean lan egin behar dugu, guk bezala giza elkartasuna lantzen duten beste talde eta entitateekiko sinergiak sustatuz. Berreskuratu dezagun gertutasunaren eta elkarrekiko mendekotasunaren zentzua, senidetasunezko loturak eta parte-hartzea indartzeko.

Gogoetak partekatu eta solasean jardungo dugu:

Nola zaintzen eta lantzen dugu, zehazki, gure kristau-izaera, hau da, Jesusen jarraitzaileen taldeko kide izatea? Zer neurritan sentitzen gara misio baten betearazleak edo ikasleak

Nola estutu ditzakegu kristau-komunitateko gainerako kideekiko loturak, parrokiaren berezko esparruan, komunitatean, apaizekin, laikoekin? Eta Eliz ingurukoak ez diren pertsonekin?

Nola indartu eta estutu ditzakegu lankidetzazko eta senidetasunezko loturak Elizaren barruan, beste errealitate pastoral batzuekiko (Migrazioak, Lana, Osasuna...), artzapezpikutzan, elizbarrutian, parte hartzen dugun guneetan?

Nola izan gaitzke gaur egun errukitsuen elkarteko kideak, errukiz eta doako maitasunez mugitzen direnak, eta bakearen sortzaile direnak?



IBILBIDEA BERRANTOLATU, ETA BIDEA ZABALTZEN DUGU

Karitatearen Eguna ospatzea Jainkoaren erregetzako oturuntza ospatzea da.

Itxaropenari bidea zabaltzen diogula esaten dugunean, esan nahi duguna da maitasuna eta Berri Onaren poza gure bizitzan eta harremanetan ager dadin errazten dugula.

Proposatzen dizuegu antolatu ditzazuela, zuen aukeren eta plangintzaren arabera, gaur egun Jainkoaren Erregetza adierazten duten jarduerak, itxaropenaren bidea zabaltzen dutenak, zuen herrian, auzoan edo inguruan.

Zenbait proposamen:

Topaketaren bat antolatzea talde desberdinen artean (artzapezpikutzako parroketako taldeak, Caritaseko taldeak eta pastoraltza-taldeak...), han elkarren artean partekatzeko sinergiak, jardunbide onak, proiektuak..., auzoko presentzia hobetzeko...).

Itxaropenari bidea zabaltzea adierazten duten ekintzak, ekimenak edo jarduerak bilatu eta erabakitzea esparru desberdinetan: parrokan, auzoan, laguntzen ditugun proiektuetan, guztion etxea zaintzearekin lotuta, pertsona migratzaileen harrera eta gizarteratzearekin lotuta, edo pertsona zaurgarrienekin, gaixorik daudenekin, zaharrekin...

Jardueraren bat antolatzea, Caritasen proiektuak oro har edo proiektu zehatz bat ezagutzera emateko. "Elkartasun azoka" txiki bat egin daiteke, proiektuetan parte hartzen duten pertsonen beren proiektuen berri eman dezaten: proiektuen helburuak, zer lan egiten duten, eta zer emaitza dituzten. Mezatatik ateratzeko unea aprobetxatu daiteke, jendea gonbidatzeko, eta egiten den lana ezagutzeko aukera izan dezaten. Lekukotasuna emateko eta borondatezko konpromisoa hartzera deitzeko modu bat da.

Otoitz-bijilia bat antolatzea, guztiek parte hartzeko modukoa, taldean prestatua, eta afaria partekatuz bukatu daitekeena.

Keinu edo ekintzaren bat egitea, guztion etxea edo natura zaintzeko konpromisoarekin lotua; ekologia integraleko ekimenak jasotzea, Frantzisko aita santuaren Laudato sí entziklikaren ildotik.

OTOITZERAKO TXOKOA

ANIMAZAILEA:

Keinuek adierazten dute nolakoak garen, zer garen, gure bizitza nola bizi dugun. Eukaristia ahultasunaren keinua da, maitasunez dena ematearena, eta hor aurkitzen dugu zein den besteekin bat egitearen zentzua, garena partekatzearena, Jesu Kristoren bizitzan parte hartzearena. Karitatearen Egunaren ospakizunaren inguruan, hari jarraitzeko erabakia eta konpromisoa berritzen dugu. .

Afaltzen ari zirela, ogia hartu zuen Jesusek eta, bedeinkazioa esan ondoren, zatitu eta eman egin zien, esanez: “Hartzazue, hau nire gorputza da”. Gero, kopa hartu eta, esker oneko otoitza egin ondoren, eman egin zien, eta denek edan zuten. Eta esan zien: “Hau nire odola da, Jainkoarekiko ituna berrituko duena, guztiengatik isuria”. (Mk 14, 22-25).

ABESTIA:

Tú nos invitas, Señor. Salomé Arricibita.

https://www.youtube.com/watch?v=g_YtbnPs8Uo

*Tú nos invitas Señor
a sentarnos a tu mesa sin condición
Tú nos invitas Señor
que sepamos escuchar siempre tu voz
que sepamos escuchar siempre tu voz.*

Para responder hay que saberse invitado
para responder hay que saberse llamado
para responder hay que querer dejar a un
lado todos los miedos que nos hacen
encerrarnos Para responder hay que
aferrarse a la vida
y celebrar como un regalo cada día
para responder no hay que mirar hacia
arriba sino hacia adentro o al que a mi lado
camina Para responder hay que limpiar la
mirada
de prejuicios y filtros que no dejan ver nada
para responder, un buen traje de fiesta
que vista el corazón para que salga hacia
afuera

*Tú nos invitas Señor
a sentarnos a tu mesa sin condición
Tú nos invitas Señor
que sepamos escuchar siempre tu voz.*



IRAKURKETA:

Mirar a Dios para vivir esperanzadamente
(Evangelio de Lc 12, 4-7)

"A vosotros, amigos míos, os digo esto:
No temáis a los que matan el cuerpo y
no pueden hacer nada más. Yo os diré a
quién debéis temer: Temed a aquel que,
después de matar, tiene poder para echar
al fuego toda esperanza. A ése es a quien
debéis de temer.

¿No se venden cinco pájaros por muy
poco dinero? Y, sin embargo, **Dios no
se olvida ni de uno solo de ellos**. Más
aún, hasta los cabellos de vuestra cabeza
están todos contados. No temáis; vosotros
valéis más que todos los pájaros".

JESUSEKIN OTOITZ EGITEKO TESTUA:

"Señor, contigo no puedo andar a medias tintas,
pero así me siento muchas veces.

Quiero ir tras de ti
pero sigo aferrado a mis cosas y apegos,
sólo Tú puedes hacer que te siga:
Tu amor cada día sobre mí,
tu voz que no me deja,
tu mirada que me acompaña
en todas mis pérdidas.

¿Puedo comenzar de nuevo hoy?
¿Puedo estrenar mi vida contigo
tal y como estoy?

Vuelves a decirme una y otra vez:
Sígueme.

Atráeme, Señor, tras de ti.
Dame confianza y coraje
para poner en ti mi corazón
y mi vida entera.

¡Dios mío y todas mis cosas!"
(Mariola López Villanueva rscj)

IRAKURKETA: Evangelio de Mt 5, 13-19

"Vosotros sois la sal de la tierra. Pero si la sal se vuelve sosa, ¿con qué la salarán? No sirve más que para tirarla fuera y que la pise la gente. Vosotros sois la luz del mundo. No se puede ocultar una ciudad puesta en lo alto de un monte. Tampoco se enciende una lámpara para meterla debajo del celemín, sino para ponerla en el candelero y que alumbre a todos los de casa. Brille así vuestra luz ante los hombres, para que vean vuestras buenas obras y den gloria a vuestro Padre que está en los cielos. No creáis que he venido a abolir la Ley y los Profetas: no he venido a abolir, sino a dar plenitud. En verdad os digo que antes pasarán el cielo y la tierra que deje de cumplirse hasta la última letra o tilde de la ley. El que se salte uno solo de los preceptos menos importantes y se lo enseñe así a los hombres será el menos importante en el reino de los cielos. Pero quien los cumpla y enseñe será grande en el reino de los cielos".

Oración compartida: cómo somos luz y esperanza en este mundo herido.

ORACIÓN FINAL:

"¡Enamórate!

Nada puede importar más que encontrar a Dios.

Es decir, enamorarse de Él

De una manera definitiva y absoluta.

Aquello de lo que te enamoras atrapa tu imaginación,

Y acaba por ir dejando su huella en todo.

Será lo que decida qué es

Lo que te saca de la cama en la mañana,

Qué haces con tus atardeceres,

En qué empleas tus fines de semana,

Lo que lees, lo que conoces,

Lo que rompe tu corazón,

Y lo que te sobrecoge de alegría y gratitud.

¡Enamórate! ¡Permanece el amor!

Todo será de otra manera.

(Joseph Whelan sj)

